



2013KO IRAILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko irailaren hogeita seian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Kepa Goenaga Alikostes zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2013ko ekainaren 27an egindako ohiko eta 2013ko uztailaren 30ean egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratu da.

III.- 2013KO OTSAILAREN 8KO 1/2013 FORU ARAUAREN 5.3 ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO KONTUAHRTZAILEAREN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-

Jarraian, udal honek onartutako kreditu gehigarri bidezko 2 zbk.dun kreditu aldaketa dela eta, eta honek gastuaren arauak finkatzen duen muga gainditzen duela eta, 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan aurreikusitako kontuhartzailearen txostenaren berri ematen da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.



IV.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNEA LANEN 8. ETA 9. OBRA-EGIAZTAGIRIAK.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 8. eta 9. obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Lanen 8. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa BERROGEITA BOST MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOtakoa (45.781,60 €) da eta 9. obra-egiaztagiriarena berriz HEMEZORTZI MILA EHUN ETA HIRUROGEI EURO ETA HA-MAIKA ZENTIMOtakoa (18.160,11 €). Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 8. eta 9. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

Une honetan Albisu zinegotzia bilkurara itzultzen da.

V.- 2 ZBK.DUN HIRIGINTZA JARDUKETA AREAKO -IBABE-PINGON- 2.2 -AZKAR-, 2.3 -ARRUABARRENA- ETA 2.4 IRIZAR FORGE- AZPIGUNEETAKO HIRI ORDENAMENDUKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINA.-

Lazkaoko Udala, Osoko Bilkurak 2013ko uztailaren 30ean egindako ez-ohiko bilkuran hartutako akordio bidez, 2 Hirigintza Jarduketa Area -Ibabe-Pingon-ko 2.2 -Azkar-, 2.3 -Arruabarrena- eta 2.4 -Irizar Forge- azpiguneetako hiri ordenamenduko Plan Berezia, baldintzekin, behin betikoz onartzea.

Baldintza horietako batek, bi hilabeteko gehieneko epean Tokiko Gobernu Batzararak hasierakoz onartutakoaren aurreikuspenak, 2012ko urriaren 2ko udal arkitekto aholkulariak egindako txostenean jasotako zehaztapenak, 2013ko urtarrileko "Dokumentu Osagarria"n jasotako oharra hala nola onartutako alegazioaren ondoriozkoak jasoko dituen bategindako dokumentua aurkeztu beharko dela esaten du.

Plan bereziaren sustatzaileak aurkeztu du bategindako testua eta dokumentu honek udal teknikarien oniritzia jaso du.

Guzti hau honela eta Hirigintza Batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2 Hirigintza Jarduketa Area -Ibabe-Pingon-ko 2.2 -Azkar-, 2.3 -Arruabarrena- eta 2.4 -Irizar Forge- azpiguneetako hiri ordenamenduko Plan Bereziaren bategindako testua onartzea erabakitzen du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du Sasieta Lazkaori buruzko datuak eskatu zituela uztailean eta oraindik ez zaizkiola eman eta ez dela lehenengo aldia, eta galdetzen du ea datu horiek noiz emango zaizkion.

Alkateak erantzuten dio bihar bertan emango zaizkiola eskatu dituen datuak.





Albisu zinegotziak esaten du eskatzen duela aurrerantzean eskudun agintariak modu formalean eta epe barruan ebatzi dezala zinegotziek egiten dituzten informazio eskabi-deak, hau da, legeak esaten duen moduan bost eguneko epean erantzun eta horrela ez bada "silencio administrativo" izanik eta horren arabera jokatzera eta hau aktan jasotzea eskatzen duela.

Alkateak erantzuten dio esanez saiatuko direla eskariei erantzuten dauden baliabideen arabera.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du atez atekoaren kostu ekonomikoei buruzko informaziorik ez dela eman EAJK esan duen bezala, eta bestalde galdetzen du zeintzu izan diren gobernu taldeak erabili dituen erizpideak uda garaiko egunetan, horrek jendea herrian ez egotea dakarrelarik, bilketa puntuei buruzko aportazioak egiteko epea ireki ahal izateko.

Alkateak erantzuten dio esanez berak uste duela hilabete eta erdi nahiko denbora dela informazio zabalketa egiteko, nahiz uda izan.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hiru minutu direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

